

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun errezeta elektronikoa Atarrabia, Antsoain eta Ermitagañan ezarriko du Nafarroako Gobernuak urtarrilean

Ondoren, Iruñako eta Iruñerriko oinarrizko osasun eremutan ezarriko du eta, hori buruturakoan, Nafarroa osora zabalduko du

Miércoles, 21 de diciembre de 2011

Gaur goizean hasi dituzte Atarrabia, Antsoain eta Ermitagañako oinarrizko osasun eremuetan errezeta elektronikoa ezartzeko instalazio teknikoak. Atarrabiako eremuan zortzi farmazia daude, Antsoainen sei eta Ermitagañan hemeretzi.

Zerbitzua urtarrilaren 11an jarriko da abian

Atarrabian, hil horren 16an Antsoainen eta ondoren Ermitagañan.

Nafarroako Gobernuak gaur ezagutu du, bere asteroko bileran, Osasun errezeta elektronikoa Foru Komunitatean ezartzeko plana.

Behin lehenengo fasea amaituko denean, errezeta elektronikoa Iruña eta Iruñerriko oinarrizko osasun eremutan ezarriko da: Burlata (14 farmazia), Uharte (9), Arrotxapea (25), Txantrea (16), Donibane (26), Iturrama (16), Barañáin (14) eta Etxabakoitzen (7).

Iruñerrian ezarri ostean, errezeta elektronikoa Nafarroa osora zabalduko da.

Farmazia gastuaren aurrezpena

Errezeta elektronikoak prozesua automatizatuko du: batetik, ziklo kliniko (medikuen agindua eta sendagaien ematea) eta, bestetik, ziklo administratiboa (faktura egitea). Hortaz, aurrerantzean, medikuak agindutako sendagaia lortzeko, gaixoak nahikoa izango du botiketan osasun txartela aurkeztea (ez du paperezko errezeta eraman beharko).

Errezeta elektronikoa Nafarroa osora zabaldu aurretik, esperimendazio fase bat burutu da Iruñerrian, Mendillorriko oinarrizko eremuan. Bertan, 2010eko maiatzean jarri zuten abian zerbitzua eta urte arteko farmazia gastua % 5,35 gutxitu da. Nafarroako beste oinarrizko osasun eremutan, berriz, % 1,61koa izan da murrizketa epe berean.

Gainera, farmazia gastuak % 2,7 egin du behera gaixo bakoitzeko, Nafarroa osoan % 1,4 egin duen bitartean. Arrazoi nagusia, agindutako



Osasun etxe baten barrualdea.

sendagai kopuruan izandako beherakada: Mendilloriko eremuan % 2,3 gutxitu da eta Nafarroa osoan, aldiz, % 0,7 handitu da.

Errezeta elektronikoaren onurak

Errezeta elektronikoaren prozesua honakoa da: medikuak sistema berriaren bidez aginduko dizkio sendagaiak gaixoari. Honek paper bat jasoko du sendagaia erabiltzeko jarraibideekin (sendagaiaren posologia eta tratamenduaren iraupenarekin) eta farmazian, behin osasun txartela aurkeztu eta gero, sendagaia emango diote.

Medikuek egindako aginduak eta farmazialariek emandako sendagaiak datu base batean gordeko dira.

Errezeta elektronikoaren onura nagusienak hauxek dira:

- Herritarrentzat: segurtasun handiagoa aginduetan, bikoizketak ekidingo direlako, eta errezetak hartzeko osasun etxera joan behar ez izana.

- Medikuentzako: burokrazia gutxiago (hortaz, artapen klinikoak egiteko denbora gehiago) eta tratamenduaren jarraipen hobea egiteko aukera.

- Osasun administrazioarentzat: unean uneko kontrol handiagoa sendagaien ematean, emandako agindu eta sendagaien ezagutza denbora errealean izateko aukera, akats eta iruzur gutxiago, eta faktura farmazeutikoaren kontrol eta kudeaketan erraztasunak.

- Botikentzat: gaixoen historia farmazeutikoaren inguruko informazioa gehiago, sendagaiak emateko eta fakturak egiteko erraztasunak, medikuekin komunikazio hobetzen du, eta gaixoei hartzen dituzten sendagaien inguruko informazioaren kontrol handiagoa.